7 / BILBAO BERRIKUNTZA FAKTORIA: VALORACIÓN POSITIVA TRAS UN AÑO DE ANDADURA

18 / BEGOÑA PEDROSA HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEKO DEKANOA



09 / LEHENDAKARIAK MEXIKON UNIVERSIDAD MONDRAGON-UCO INAUGURATU DU

# MUniversitas

MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN ALDIZKARIA | 2014ko udazkena | 28. zenbakia



## IOSU ZABALA ERREKTOREA ZORTZI URTETAKO EKINAREN OSTEAN, ETAPA BERRIA

GIZATASUNA LANEAN MONDRAGON

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

LABORAL kutxa







# KOLDO MITXELENA Kulturunea

**KOLDO MITXELENA Kulturunea**n egiten diren ekitaldiak interneten bidez ikus ditzakegu, dohaineko *RealVideo* programa instalatu bezain pronto. Ikus: kmk.gipuzkoakultura.net









**KOLDO MITXELENA Kulturuneko** liburutegiko liburuak zure esku daude; zure ohiko liburutegian eska ditzakegu, bertako liburuzainek guri eskatuko dizkigute eta biharamunean zurean izango dira. Zehaztasun gehiago: lam-pib@gipuzkoa.net

koldo Mitxelena Kulturunea. Urdaneta 9. 20006 Donostia. kmk.gipuzkoakultura.net

## AURKIBIDEA


03 Editoriala

04-07 Berriak

08 Kolaborazioak

09 Iritzia · Xabier Sagarna

10-12 Gai nagusia

13 Iritzia · Lander Beloki

14-17 Fakultateak

18-19 Elkarrizketa ·Begoña Pedrosa

20 Tesiak

21 Ikasle ohiak

22 Kirol Zerbitzua

23 Kirol Zerbitzua

24 Agenda


# RELEVO EN EL ILUSIONANTE PROYECTO COMÚN DE MU

En enero de 2015 Iosu Zabala dejará el cargo de rector de Mondragon Unibertsitatea y será sustituido por Vicente Atxa, actual director de la Escuela Politécnica Superior. Zabala ha dirigido esta nave durante dos mandatos y son innumerables los logros conseguidos, a pesar de las dificultades y los cambios que la crisis ha provocado en todos los ámbitos. La forma de afrontar estas dificultades ha demostrado que las facultades y las personas que forman Mondragon Unibertsitatea tienen un bagaje y un know-how de garantías, forjado gracias a su carácter emprendedor, trabajador y visionario.

Uno de los secretos del éxito y de que lejos de naufragar en ese oleaje de situaciones cambiantes, MU haya sabido reinventarse día a día, ha sido la pasión y el optimismo con el que Iosu Zabala ha acometido los retos, así como haber sabido conformar un grupo de trabajo impecable al que ha contagiado esa visión, y que se ha volcado en el diseño y la consecución de todos aquellos retos.

Muestra de ello es, por ejemplo, el hecho de que la universidad supiera adaptarse con agilidad a los cambios provocados por el Proceso de Bolonia del Espacio Europeo de Enseñanza Superior. Conceptos tales como la investigación aplicada a las necesidades de las empresas están desde hace mucho interiorizadas en Mondragon Unibertsitatea.

Mondragon Unibertsitatea marca su impronta afianzándose en su entorno más cercano y proyectando una marca ineludible en el ámbito educativo, lo que tiene un reflejo en su implantación en las más importantes ciudades y comarcas, así como exportando métodos de estudio a países más lejanos como México, Colombia y Arabia Saudí.

Mondragon Unibertsitatea seguirá reforzando sus valores, ya reconocidos, y expandiéndolos para la construcción de una sociedad mejor, primando el empuje del concepto de formación continua y de la relación de tú a tú con el mundo de la empresa.

*Uno de los secretos del éxito de Mondragon Unibertsitatea ha sido la pasión y el optimismo con el que Iosu Zabala ha acometido cualquiera de los retos.*

Iosu se va, Vicente Atxa, protagonista directo de las decisiones y dirección tomadas por Mondragon Unibertsitatea y miembro de ese grupo de trabajo clave, coge el timón como rector. También Begoña Pedrosa ha sustituido recientemente a Nekane Arratibel como decana en la Facultad de Humanidades y Ciencias de la Educación. Cambian las personas, pero todas ellas forman parte de un equipo y de un proyecto ambicioso y realista que tiene nuevos retos y objetivos.


MONDRAGON UNIBERTSITATEA

**MUniversitas**

**Argitaratzailea** Mondragon Unibertsitatea • Loramendi 4 • (23. p.k.) ARRASATE 20500 (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 21 85 | Faxa: 943 71 21 93 | E-posta: info@mondragon.edu
**Koordinatzailea** Arteman Komunikazioa | **Erredakzio kontseilua** Goio Arana , Susana Azpilikueta, Idoia Elizalde, Edurne Galindez, Maria Angeles Iñurritegi, Idoia Peñakoba eta.
**Laguntzaileak** Lander Beloki, Xabier Sagarna, Pedro Subijana, Estibaliz Zurimendi.
**Tirada** 5.500 ale | **Lege gordailua** SS-1360/05 | **Diseinua eta publizitatea** Arteman Komunikazioa
**Azaleko ilustrazioa** Lorena Martínez | **Argazkiak** M.U / Arteman | **Moldiztegia** MCC Graphics

## WALKINN PROPONE 'RUTA EMPRENDE'

Walkinn está formada por diez jóvenes emprendedores de la primera promoción del grado LEINN Madrid que, lejos de centrarse en un área única de actividad, plantean un abanico heterogéneo de proyectos de lo que ellos denominan *dream projects*.

Los jóvenes socios de Walkinn son los protagonistas de 'Ruta Emprende', un viaje de cuatro meses por Asia. La aventura comenzó el 14 de septiembre y les llevará a ciudades como Bombay, Calcuta o Shanghái. Además del videoblog (beat4people), los emprendedores en ruta están en contacto con los espectadores gracias a las redes sociales y contestan a sus preguntas a través de Twitter (@Ruta_Emprende).

El objetivo es "estrechar lazos empresariales y culturales con las potencias en claro desarrollo", explican en la memoria del proyecto, que pretende conseguir avanzar en distintos desarrollos interactuando con los agentes sociales y empresariales de los países visitados.

## CARLOS GARCÍA, GOI ESKOLA POLITEKNIKOKO ZUZENDARI IZENDATUA

Carlos Garcíak Mekanikako Ingeniaritza Teknikoa egin zuen Goi Eskola Politeknikoan eta Goi Ingeniaritza Mekanikoa, materialen espezialitatean, Ecole Centrale de Nantes-en (Frantzia). Han egin zuen deformazio bidezko Fabrikazio Teknologiak doktoregoa.

1993tik Goi Eskola Politeknikoan ari da lanean irakasle eta ikerlari bezala Fabrikazio departamentuan. Materialen arloko ikerketa eta berrikuntza proiektuetan parte hartu du. 1999tik 2007ra arte, Materialen Konformatuaz Eraldatzeko Prozesu Aurreratuak taldeko koordinatzailea izan da. Eta azken zortzi urteotan, Mondragon Unibertsitateko GEPeko Ikerketa eta Transferentzia Koordinatzailea izan da eta aldi berean, Koordinazio Orokorreko mahaikidea.

BERRIAK



**OHOREZKO AGURRA** jaso zuten Mondragon Unibertsitateko ordezkari eta erakundeetako agintariek.

## ZABALAREN HITZALDI HUNKIGARRIA, MONDRAGON UNIBERTSITATEKO 2014-2015 IKASTURTEAREN IREKIERA EKITALDIAN

LEHENDAKARIAK 2014-2015 IKASTURTEARI HASIERA EMAN ZION GEP-EN, ARRASATEN, EGINDAKO EKITALDIAN. ALBOAN IZAN ZITUEN HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILBURU CRISTINA URIARTE, MU-KO ERREKTORE IOSU ZABALA, IDAZKARI NAGUSI IDOIA PEÑACOBA ETA JON AURREKOETXEA IRAKASLEA.

Mondragon Unibertsitatearen ikasturte hasierako ekitaldiak beti dira jendetsuak, gure paisaiako pertsona, erakunde, enpresa eta eragile asko direlako unibertsitate honekin harreman estua dutenak. Idazkari nagusi Idoia Peñacobak ireki zuen ekitaldia. Eskaintzaren nondik-norakoak, erronka nagusiak eta nazioarte prozesuan ematen diharduen pauso nagusiak zerrendatu zituen. Ondoren, Jon Aurrekoetxea irakasleak 'Karbono-zuntzezko konpositeak. Etorkizuneko material liluragarriak' izenburuko berbaldia egin zuen. Konpositeen orainaz, aplikazio ugariez eta etorkizunaz mintzatu zen modu originalean egindako kontakizunean.

### ZABALAREN HITZALDI BOROBILA

Horren ostean, abenduan errektore kargua utziko duen Iosu Zabalak hartu zuen hitza. Bi legealdi egin ditu eta hitzaldi irmo bezain hunkigarria eskaini zuen, karguaren uztearen agur ofiziala izan daitekeena. Baina ez zen hunkigarria izan bakarrik kargua uztera doalako, baizik eta berbaldian aipatutako indarguneengatik.

Bata, Fagor Etxetresnen erortzea. Irmotasunez aldarrikatu zuen eredu kooperatiboa ez dagoela krisian, alderantziz. Are gehiago, zinez sinisten duela "gure historian oztopoak gainditzeko izan dugun gaitasuna bizi-bizirik" dagoela. Beste bat, gizartearen eta unibertsitatearen arteko lotura estua. Bata ez dela ezer bestea gabe, eta biek behar dutela elkarri aurrera egiteko izan zen ideia nagusia. Eta azagutza enpresa eta gizarteari zabaltzearen garrantzia aldarrikatu zuen, Mondragon Unibertsitateak betidanik transferentzia hori muintzat izan duela gogoratuz.

Nazioartekotzeak ere protagonismoa izan zuen. Nabarmendu zuen MONDRAGON taldearekin batera gai izan direla Europatik harago ere proiektuak ezartzeko. Eta erakundeei eskatu zien publikoak ez diren unibertsitateek proiektuekin jarraitu ahal izateko finantzazioa bermatzeko. Bukatzeko, hitz beroak izan zituen alboan izan dituen lantalde eta kolaboratzaile guztientzat; baita Zabala ordezkatuko duen Vicente Atxarentzat ere.

# ATZERRITIK ETORRI DIREN IKASLEEI ONGIETORRIA EGIN ZAIE



NAZIOARTEKO 170 IKASLE INGURU HARTUKO DITU UNIBERTSITATEAK IKASTURTE HONETAN, EUREN PRESTAKUNTZAREN ZATI BAT BERTAN EGITEKO. DAGOENEKO HELDU DIRA LEHENDABIZIKO 70 IKASLEAK ETA MU-K HARRERA ETA ONGIETORRI EKITALDIA PRESTATU ZUEN BERAIENTZAT.

Jon Altuna Mondragon Unibertsitateko errektoreorde akademikoak zuzendu zuen ekitaldia Enpresagintza fakultatean, Oñatin. Unibertsitatearen izaera eta 1972an hasitako nazioarteko bidea goraipatu ziren bertan. Aurpegi berrien eta munduko hizkuntzen topagune bilakatu da fakultatea, nahiz eta norbere hizkuntzaren gainetik, ingelesa izan zen nagusi ekitaldian eta baita jendearen arteko elkarrizketetan ere.

## NAZIOARTEKO HITZARMENAK

Unibertsitateak hitzarmenak ditu Europako ehundik gora unibertsitate ospetsurekin. Baita Ipar eta Hego Amerikarekin eta Asiarekin ere, eta horrek ikasle eta irakasleen mugikortasuna errazten du. Datuak kontuan hartuta, ikasturte honetan Mondragon Unibertsitateko 638 ikaslek prestakuntzaren zati bat egingo dute atzerrian. Horietatik 307k ikasketak egingo dituzte atzerriko unibertsitateetan, eta gainerako 321ek enpresetan eta erakundeetan praktikak eta ikaskuntza-bidaiak burutuko dituzte. Aurreko ikasturteko datuekin konparatuz gero, ondorioztatu daiteke gero eta gehiago direla kanpora doazen ikasleak gurera datozenak baino. Joan den urtean, esate baterako, Mondragon Unibertsitateko 469 ikaslek egin zuten prestakuntzaren zati bat atzerrian. Horietatik, 223 ikaslek ikasketak egin zituen eta 246 k praktikak.

Eta unibertsitatera etorri ziren atzerriko ikasleei dagokienez, Mondragon Unibertsitateak iaz 116 nazioarteko ikasle hartu zituen. Horietatik 104 ikasketak egitera etorri ziren eta 12 praktikak eta proiektuak egitera.

> Nazioarteko 170 ikasle inguru hartuko ditu unibertsitateak ikasturte honetan. MUko 638 ikaslek prestakuntzaren zati bat egingo dute atzerrian.

## ENCUENTRO MULTILINGÜE

Enpresagintza reunió a más de un centenar de jóvenes estudiantes procedentes de diversos lugares.

# MÁS DE 60 CHEFS Y EXPERTOS DE TODO EL MUNDO IMPARTEN EN BCC LOS CURSOS PARA PROFESIONALES



Basque Culinary Center ha diseñado ya su oferta para profesionales de este año. Una oferta formativa integral que abarca todas las áreas de la restauración y que cuenta como profesores a sesenta chefs de renombre nacional e internacional.

El programa diseñado este año por Basque Culinary Center abarca todas las áreas de la restauración a través de: 12 máster class; 4 cursos intensivos; 3 cursos de especialización; 16 talleres de cocina; 5 talleres de pastelería y repostería, 7 cursos de gestión; 3 seminarios y un congreso de sala y servicio y cuatro másteres.

Cocineros de referencia internacional como el noruego Esben Bang, el francés Alain Passard, el chef peruano Gastón Acurio o el asiático Yukio Hattori descubrirán sus secretos culinarios a través de las master class que liderarán.

Junto a ellos, Basque Culinary Center cuenta con la colaboración de cocineros nacionales de la talla de Pedro Subijana, Elena Arzak, Andoni Luis Aduriz los hermanos Roca (Joan y Jordi), que impartirán distintos cursos.

En total se han programado 50 cursos que abarcan todas las áreas de la restauración.

Toda la información en *www.bculinary.com/es/oferta-formativa.*

## VICENTE ATXA SERÁ EL NUEVO RECTOR DE MONDRAGON UNIBERTSITATEA

A finales de mayo Iosu Zabala comunicó formalmente su intención de dar por concluida su labor como rector de Mondragon Unibertsitatea al finalizar su segundo mandato, tras ocho años en dicho cargo.

El pasado 8 de septiembre, en reunión extraordinaria del Consejo Rector de Mondragon Unibertsitatea, el Consejo acordó la elección de Vicente Atxa, actual director de la Escuela Politécnica Superior de Mondragon Unibertsitatea, como nuevo rector de la misma, a partir de enero de 2015.

Atxa, de 48 años de edad, es ingeniero superior en Electrónica y doctor en Electrónica y Comunicación por la Staffordshire University del Reino Unido.

## CERTIFICADOS DE CALIDAD AUDIT PARA NUESTRAS FACULTADES

La Agencia de Calidad del Sistema Universitario Vasco Unibasq ha emitido un informe favorable sobre el sistema de calidad de la formación universitaria en la Escuela Politécnica Superior implantado según el programa AUDIT. El informe destaca particularmente la interrelación Universidad - Empresa. Es la primera vez que se realiza esta auditoría en la EPS.

Además, La Agencia de Calidad del Sistema Universitario Vasco Unibasque también ha emitido un informe favorable a la Facultad de Humanidades y Ciencias de la Educación por el sistema de calidad utilizado para la evaluación. La facultad de Eskoriatza lleva años utilizando este sistema de calidad. Es la primera vez que se realiza esta auditoria en HUHEZI, y cabe destacar que hasta ahora nunca se había realizado en ningún sitio este tipo de auditoría en euskera.

BERRIAK

**BCC EN EL FESTIVAL DE CINE DE SAN SEBASTIÁN.** El peruano Gastón Acurio presentó el documental 'Buscando a Gastón' y tras la proyección cocinó para los asistentes.

## GASTÓN ACURIO CHEFAK SUKALDATU ZUEN CULINARY ZINEMA SAILEKO AMAIERA EKITALDIAN



Peruko chefak, Basque Culinary Centerreko Aholku Batzordeko kideak, 'Buscando a Gastón' izeneko dokumentala aurkeztu zuen Donostiako Zinemaldian. Ondoren, emanaldian izan ziren ikusleei afaria eskaini zien, Héctor Solís eta Mitsuharu Tsumura sukaldariekin batera.

'Culinary Zinema' zikloa Donostiako Zinemaldiaren baitan kokatzen da, zinema eta gastronomia uztartzen ditu eta Basque Culinary Centerrek kudeatzen du.

Zalantzarik gabe, zinema alorrean Europa mailan dagoen hitzordu garrantzitsuenetariko bat da Donostiako Nazioarteko Zinemaldia eta bere baitan antolatzen da Culinary Zinema zikloa. Aurten dagoeneko laugarren edizioa bete du eta balorazioa positiboa izan da, eskaini diren lanak kontuan hartuta eta baita ikusleen kopuruagatik ere.

## ARTEFACTORY LLENA DE CREATIVIDAD CALLES Y ESPACIOS ABIERTOS

Artefactory es una empresa que ofrece servicios de pintura mural. Propone aportar creatividad a los espacios y a las calles mediante el muralismo en forma de graffiti. Es una empresa joven compuesta por cinco socios, con su página web *artefactoryteam.com*, que ya cuenta con cierta experiencia en este campo del pintado de murales. El objetivo es pintar en todo tipo de superficies desde persianas, fachadas o muros de establecimientos comerciales, hasta viviendas .

Este mismo verano han realizado un dibujo en un mural de unos 500 metros cuadrados, en el antiguo Hotel Miramar, a la entrada de la localidad de Deba.

Para la realización del mencionado mural, Arte Factory ha dedicado 23 días de trabajo. El dibujo presenta a una surfista en la playa de Deba y como características técnicas puede decirse que abundan los colores azules, el blanco y el verde de fondo.

Los socios Jon Olaziregi, Lander Subiza, Martin Unzueta, Agustin Otegi e Iñigo Arrieta forman Arte Factory. “Nosotros somos una empresa de graffiti. También creamos valor a la hora de educar futuras generaciones instándolas a que crezcan en un ambiente de graffiti social y artístico de una manera constructiva”, subrayan.

# BILBAO BERRIKUNTZA FAKTORIA: VALORACIÓN POSITIVA TRAS UN AÑO DE ANDADURA




TRAS SU PRIMER AÑO DE ANDADURA, EL ESPACIO CUENTA CON 22 EMPRESAS INNOVADORAS Y 110 TRABAJADORES, Y LAS PREVISIONES SON AÚN MÁS POSITIVAS. LAS ESTIMACIONES APUNTAN A UN CIERRE DE AÑO CON 228 TRABAJADORES Y 27 EMPRESAS INNOVADORAS O DE RECIENTE CREACIÓN.

Bilbao Berrikuntza Faktoria cuenta con tres ámbitos diferenciados en un mismo espacio: un centro de innovación y emprendimiento (CIE); la actividad universitaria, y la sede de empresas innovadoras.

El centro de innovación y emprendimiento es una incubadora de nuevas empresas gestionada por la empresa INIT, con la que Mondragon Unibertsitatea tiene un acuerdo estratégico. El CIE es un espacio abierto donde se generan nuevas ideas y se incuban nuevos proyectos empresariales. Hoy en día este espacio cuenta con 12 empresas, 43 profesionales y un espacio abierto para *coworkers*.

Los sectores predominantes son el comercio, la consultoría y la eficiencia energética, completados por empresas de alimentación, sociedad de la información y construcción. La zona de incubación física está ya completa y en breve plazo se espera completar la zona reservada para *coworking*, que tiene capacidad para 25 personas. Además se han celebrado diez eventos relacionados con la actividad emprendedora en los que han participado más de 400 personas.

En cuanto a la actividad universitaria, Mondragon Unibertsitatea desarrolla diferentes programas avanzados de formación –grados, postgrados, investigación y transferencia- especializados en innovación y emprendimiento. De esta manera, los alumnos participan en las actividades del Centro de Innovación y Emprendimiento e interactúan con los emprendedores y los proyectos residentes en el mismo. En este ámbito se encuentran 60 personas estudiando el grado LEINN y además se ofrecen cuatro postgrados, tres de ellos relacionados con este grado y otro experto en diseño industrial. A futuro, el reto es conseguir en 2016, un total de 150 leinners en Bilbao del total de 650 repartidos por todo el mundo (450 en Euskadi y 200 fuera de Euskadi), e impartir diferentes postgrados en emprendimiento, marketing digital, diseño industrial, comunicación audiovisual, etc, además de proseguir con la formación continua.

**MEETIG PLACE,** Bilbao Berrikuntza Faktorian kokatuta dauden eragile guztien topagunea zabaltzear da.

En el espacio dedicado a las empresas innovadoras se ubican las sedes de empresas de sectores estratégicos para la ciudad, que generan beneficios y crean nuevos puestos de trabajo. Una sede pensada tanto para jóvenes empresas innovadoras que hayan superado la fase de incubación del centro de innovación como nuevas compañías de grupos empresariales externos, que se encuentren ya en etapas de desarrollo y crecimiento. A día de hoy existen 10 empresas innovadoras con 67 trabajadores y la previsión es que el año termine con 15 empresas.

Además, a estos tres ámbitos se le incorporará a mediados de noviembre otro espacio denominado Meeting Place, que desempeñará la función de zona común y punto de encuentro para los diferentes agentes ubicados en Bilbao Berrikuntza Faktoria.

ALECOP

# EXPERIENCIAS LABORALES COOPERATIVAS II



MUCHOS JÓVENES CONTINÚAN INCORPORÁNDOSE A LA EXPERIENCIA DE LA AFET (ALTERNANCIA FORMATIVA ESTUDIO-TRABAJO) EN ALECOP, QUE AHORA LES SUPONE UN ESFUERZO PERSONAL MAYOR A CAMBIO DE UNA FORMACIÓN MÁS COMPLETA QUE LES FACILITARÁ SU FUTURA INSERCIÓN PROFESIONAL EN LA EMPRESA.

El año pasado pudimos hablar con Leire Bergara y Ainhoa Alonso, dos escolares que vivían diferentes situaciones de la alternancia formativa de estudio y trabajo. La primera, acababa de empezar su experiencia en la AFET y por otra parte, Ainhoa, llevaba ya cuatro años. MUniversitas ha querido volver a hablar con ellas.

**Un año después ¿qué tal os sentís en la empresa?**

**Leire Bergara:** Ahora sí me siento integrada en la empresa. Propongo acciones que se realizan, tomo decisiones que dependen de mí y tienen en cuenta mi opinión. Además, estoy rodeada de profesionales que se preocupan por mi evolución y me aconsejan cuando tengo alguna duda.

**Ainhoa Alonso:** Ha cambiado todo pero no ha cambiado nada. Me explico, he pasado de ser escolar a ser trabajadora de Fagor Ederlan. Tanto personalmente como profesionalmente, es un gran cambio pero en cuanto al día a día en la empresa, no ha cambiado casi nada: ya conocía a mis compañeros, sé como se trabajaba en la empresa, me relaciono con los clientes… Tengo que agradecer a mis compañeros que hayan confiado en mí.

LEIRE BERGARAK ETA AINHOA ALONSOK lana eta ikasketak uztartzen dituen AFET programan parte hartu zuten.

**¿Qué es lo que destacaríais de lo que habéis aprendido?**

**L.B.:** Ahora me parece muy importante conocer una empresa y coger el ritmo del mundo laboral. Es decir, vivir una experiencia totalmente real. He aprendido mucho teniendo responsabilidades, trabajando en equipo, cumpliendo objetivos, resolviendo problemas… De esta manera me he involucrado más en la empresa y mis preocupaciones han pasado de ser personales a también ser profesionales.

**A.A.:** Con la alternancia formativa estudio-trabajo, he podido comprobar que la experiencia es un grado. Yo resumiría todo lo que he aprendido en los 5 años de AFET diciendo que terminé mi época de escolar sintiéndome una trabajadora más y teniendo responsabilidades importantes. Quiero decir que mediante esta opción me pude integrar en la empresa y que, en gran medida, gracias a eso, tengo trabajo en la actualidad.

**Resumiendo, ¿qué os parece la AFET?**

**L.B.:** Una gran oportunidad. Se trabaja constantemente con un equipo de personas, estás rodeada de profesionales de los cuales puedes aprender mucho, conoces el mundo laboral al que tendrás que enfrentarte al terminar los estudios, ganas un salario… Para mí, está siendo una experiencia muy positiva.

**A.A.:** Una gran suerte. Aunque a veces haya épocas de más carga en la universidad y vayas justa de tiempo, yo creo que merece la pena. Las empresas te conocen para un futuro, tienes la oportunidad de crecer profesional y personalmente, y puedes demostrar lo que vales. Yo recomendaría esta experiencia a todo el mundo.

# PIGMALION EFEKTUA

Noizbehinka entzuten ditugu horrelakoak: "Unibertsitatera heltzen diren gaurko gazteak ez daude garai batekoak bezain ondo prestatuak"; "Jarrera ez da garai batekoa bezalakoa"; "Ikasle honek ez du ikasgaia gainditzeko gaitasuna" …

Benetan horrela pentsatzen al dugu? Pentsamendu honek ba al du eraginik ikasleengan?

1966an Robert Rosenthal eta Landlord Jacobson ikertzaileek honako esperimentu hau egin zuten: ikasle talde bati adimena neurtzeko test bat egin zioten. Emaitzak nahiko parekoak izan ziren arren, irakasleei ikasle talde baten emaitzak nabarmen hobeak izan zirela esan zieten. Urtebetera froga errepikatu egin zuten eta 'azkarragoak' ziren ikasleek aurrerapen nabarmena izan zuten gainontzeko ikasleekiko. Hau da, irakasleek zituzten usteen ondorioz, batzuek garapen handiagoa izan zuten besteek baino.

Zer gertatu zen? Bistan denez, irakasleek ez zieten denei berdin irakatsi. Haien ustez ikasle 'onak' zirenak ikasle on gisa tratatu zituzten. Eta, ondorioz, gehiago ikasi zuten horiek.

Izan zuten tratamenduaren gakoak hauek izan ziren: giro hobeagoa, baliabide gehiago, erantzunetarako denbora gehiago eta feedback aberatsagoa. Ikasle 'txarrekin' erdipurdiko erantzunak balio zuten; Ikasle 'onekin' berriz erantzuna gehiago lantzen zen.

**Pigmalion efektuak** dioenez guk pertsona batengan espektatiba batzuk baditugu, konturatu gabe gure jarrera espektatiba horien araberakoa izango da eta pertsona horren bilakaera baldintzatuko dugu.

*"Diskurtso positibo batekin eta enpatiarekin ikaslearengan dugun konfiantza sendotzen joango gara".*

Itxaropen handiek **pigmalion efektu positiboa** dakarte eta itxaropen txikiek, berriz, **pigmalion efektu negatiboa.** Azken hau ere konturatu gabe egiten da.

Argi dago efektu honek irakaskuntzan bereziki duen eragina. Hezitzaileen itxaropen handiek emaitza onak lortzeko aukerak biderkatzen dituzte. Itxaropen txikiek aldiz porrotera eraman dezakete ikaslea.

Baina, efektu hau bizitzako gainontzeko egoeretan ere gertatzen da, lan harremanetan, familian, lagun artean, kirolean…

Lan munduan, adibidez, gaur egun inork ez du zalantzan jartzen langileengan konfiantza jartzeak eta ardura emateak duen onura.

Eta nondik dator Pigmalion izena? Greziako mitologian Pigmalion Zipreko errege izan zen. Pigmalionek Galatea izeneko eskultura bat eraiki zuen. Hain ederra zen estatua hura, berarekin maitemindu zela. Azkenean bere fedeari esker eskultura emakume bihurtu zen.

Gauza bat da pertsonengan sinestea eta beste bat pertsonei lagundu nahi izatea. Nahiz eta borondaterik onena izan, ondorioa negatiboa izan daiteke. Adibidez, seme edo alaba bati horrelakoak esanda, "Ikasi ezazu zure anaia-arrebengandik", "Hura bai formala", "Begira ze nota onak atera dituen". Ez dira intentzio txarrarekin esandakoak, baina ez dute mesede handirik egiten.

Ez da nahikoa, beraz, ikasleak lagundu nahi izatea. Benetan beraiengan konfiantza izan behar dugu; eurengan sinetsi egin behar dugu.

Baina, nola sortu benetako konfiantza? Aitortuko dugu ez dagoela errezeta magikorik. Baina, zelan hasi badakigu: **Baztertu** ditzagun adierazpen **negatiboak; azpimarratu** ditzagun gauza **positiboak**. Era berean, landu dezagun enpatia, jar gaitezen bestearen tokian eta saiatu gaitezen hura ulertzen.

Diskurtso positibo batekin eta enpatiarekin ikaslearengan dugun konfiantza sendotzen joango gara.

Hasieran aipatu ditugun esaldiak oraindik ere entzuten diren arren, zorionez gehiago dira bestelakoak. Hau da: *"Gaurko gazteei aukera emanez gero erantzuten dute", "Gaurko gazteak sekula baino prestatuago irteten dira", "Hau bai fina eta langilea",* …

Eta zuk zer egiten duzu?



**Xabier Sagarna**
Elektronika eta Informatika saileko koordinatzailea.

# ZORTZI URTETAKO EKINAREN OSTEAN, ETAPA BERRIA



ERREKTORE KARGUAN ZORTZI URTE EGIN ETA GERO, URTE BUKAERAN HARTUKO DU IOSU ZABALAK AURRETIKO ERRETIROA. ELKARRIZKETAN, URTE HAUETAN UNIBERTSITATEAK IZAN DUEN BILAKAERA ERREPASATU ETA ETORKIZUNEKO UNIBERTSITATEAK IZANGO DITUEN ERRONKAK AZTERTU DITUGU.

**Iosu, zortzi urte igaro dira kargua hartu zenuenetik. Zer moduz sentitu zara errektore bezala?**

Oso gustura! Hala ere aipatu behar da errektore kargua oso exijentea dela. Sarritan, kanpora begira ematen dugun irudia ikusten da bakarrik, baina barrura begira dugun zeregina ere zorrotza da. Beraz, bi alderdiek dute berebiziko garrantzia.

Errektoreak, unibertsitateko ordezkaria den aldetik, funtzio garrantzitsua du hainbat esparrutan: ekitaldietan, jardunaldi eta topaketa ofizialetan, eta baita ospakizun ez ofizialetan ere. Garrantzitsua da horietan guztietan parte hartzea: beste erakundeak ezagutzeko, gurea ezagutarazteko, eta azken finean elkarlanean sakontzeko. Barrura begira, berriz, unibertsitateak beste edozein enpresak bezala funtzionatzen du eta gurean fakultate bakoitza da enpresa bat, kooperatiba. Nire ibilbide profesionala errepasatuz, 21 urtetan Ikerlanen egon nintzen, ondoren Fagorren eta azkenik unibertsitatean. Hiruretan kudeaketa ez da hain desberdina izan, produktua izan da desberdina.

Edozein kasutan, gustura sentitzeko gakoa lan taldean eta inguruan dudan ekipoan datza. Horixe da aberasgarriena, zentzu guztietan: estrategiak, helburuak, emaitzak... definitzeko eta lortzeko. Denon artean egiten dugun proiektua da.

**Balorazioa positiboa da, beraz.**

Beharbada topiko bezala hartuko da, baina bai, balorazioa oso positiboa da. Sakonduz gero, 2007tik bizi dugun garaia gordina da eta horrek ondorio larriak ekarri dizkigu gure inguruan, kooperatibismoak kolpe handia bizi izan du Fagorren itxierarekin. Unibertsitate bezala, berriz, garapen handia eman dela esango nuke eta momentuan momentuko faktoreek eragin zuzena izan dute. Mondragon Unibertsitatean, garapena eta berrikuntza izan dira azken urte hauetako ezaugarriak, kanpoko faktoreen eraginez eta baita barruan egin den hausnarketa sakonari esker.

**Zortzi urte hauetan Boloniako prozesuak berebiziko garrantzia izan du, ezta?**

Bai, zalantzarik gabe, Boloniako prozesuak markatu du unibertsitatearen azken urteotako ibilbidea. Sarritan aipatzen dudan hausnarketa hauxe da: demagun Boloniako egokitzapena zortzi urte beranduago ematen dela. Bada, gaur egun ez genuke izango ez LEINN ez Bas-



"Unibertsitate eredu berriarekin ikerketa aplikatua bultzatu nahi da, enpresen beharretara egokituta eta hauen arazoak konpontzeko balioko duena".

que Culinary Center, ez Ingeniaritzako titulu zehatz batzuk… Aurretik titulazioen erregistroan agertzen ziren titulazioak ezarri genitzakeen bakarrik, baina esparru berri honetan bestelako aukerak sortu dira.

Nolabait guzti hau ulertzeko, kontuan izan behar da Boloniako prozesuarekin unibertsitateak gizartearekiko duen ikuspegia eta zeregina aldatu egin dela. Hau da, tradizioz unibertsitateak izan duen zeregina izan da irakatsi eta ikertu. Plangintza bereziak egin ziren eta dirulaguntzak sortu ziren ikerketa bultzatzeko eta ondorioz "modan" jarri zen ikertzea, baina zergatik? Eta zertarako? Beharbada hori ez zegoen hain definituta. Zehazki oraingo eredu berriarekin horixe bultzatu nahi da: ikerketa aplikatua, enpresen beharretara egokituta eta hauek dituzten arazoak konpontzeko balio duena. Gure kasuan ez da gauza berria, guk beti izan baitugu erlazio zuzena eta jarraitua inguruko enpresekin.

TRABAJO EN EQUIPO. Todos estos años el trabajo en equipo ha sido fundamental para el desarrollo de la universidad. De izquierda a derecha, Lander Beloki, Jose Mari Aizega, Idoia Peñakoba, Iosu Zabala, Begoña Pedrosa, Vicente Atxa y Jon Altuna.

**Titulazioez gain, ikasketa prozesua ere sakonetik eraberritu da, ezta? Mondragon Unibertsitateak Mendeberri proiektuaren bitartez gauzatu duena.**

Ikasketak gizartera egokitu behar diren bezala, modu berean egokitu behar da ikasketa prozesua ere.

Horren baitan, metodologiari erreparatuta, ikasle eta irakaslearen rolak definitzea garrantzitsua da, eta gu Mendeberriren bitartez hasi ginen hori lantzen 2000. urtean. Errege Dekretua 2007an argitaratu zen eta hortik aurrera garatu ziren unibertsitate gehienetan Boloniak ezartzen zituen praktika berriak. Esan bezala, gu prest geunden horri eusteko eta 2008an ezarri genituen egokitutako lehendabiziko titulazioak.

Nolabait hezkuntza eredu klasikotik beste eredu batera igarotzea izan da helburua, ikasleengan gaitasun desberdinak garatzeko eta edukien tratamenduan ere aurrerapausoak emateko. Taldeko lana, proiektuetatik ikastea, erabakiak hartzea, negoziatzea, komunikatzea, … horiek dira ikasleengan bultzatzen ditugun baloreak.

**Mondragon Unibertsitatea nabarmen handitu da, dimentsioan, titulazio aldetik, ikasle eta irakasleen kopurua… Oro har, gizartean ezaguna da, berezko izena du!**

Noski, horrela da. Ikusi datuak: Debagoieneko gure fakultateetan bertako ikasleak %25 baino gutxiago dira, eta gainontzekoak Euskal Herriko beste eskualde eta probintzietakoak dira. Horrek ez du esan nahi bertako gazte gutxi geratzen direla bertan ikasten, baizik eta kopuruan handitu garenez portzentaian gehiago direla beste eskualde batzuetakoak.



Azken urteotan planteatu dugun estrategiak bere emaitzak eman ditu. Arrasate, Oñati eta Eskoriatza izan dira MUren xede nagusiak baina Euskal Herriko hiriburuetan gure presentzia nabarmentzea hartu genuen helburutzat eta horregatik kokatu genuen Donostian Basque Culinary Center, esate baterako. Orona Ideon ekoingeneritzak jarri ditugu martxan eta dagoeneko 160 ikasle inguru ditugu bertan.

Bizkaian, harreman estua dugu Merkatarien Ganbararekin eta baita Bilboko Udalarekin. Horren emaitza da Bilbao Berrikuntza Faktoria gunea, ekintzailetasunarekin lotutako arloak garatzera bideratuta. Horregatik guztiagatik erreferenteak bilakatu gara, Estatu mailan eta baita Europan ere.

Hemen bertan ere garatuz goaz, eta horren adibide onena dira Aretxabaletako campusa eta baita guztiz itxura eraberritua duen Enpresagintza fakultatea. Bi kasuetan bertako herriekin dugun konpromisoa bultzatu nahi izan dugu. Kuriosoa da baina momentu honetan Debagoieneko herri guztietan dugu unibertsitate fakultate bat: UNED Bergaran eta MU besteetan.

**1972 urtetik Eskola Politeknikoko ikasleek Europan ikasten dihardute. Gaur egun ere nazioartekotzea da MUk duen beste helburuetariko bat.**

Behin eta berriro aipatzen dugun datua izanda ere, uste dut ez dugula benetan barneratu 1972. urtean hasi zirela Eskola Politeknikoko lehen ikasleak atzerrian ikasten, Frantzian. Ni neu izan nintzen horren lekuko, kanpoan ikasitako lehen promozio horietakoa izan bainintzen. Zorte handia izan genuen, momentuko berrikuntzak ikasteko aukera izan genuen-eta. Urtetik urtera errepikatu da ikasleen joan-etorria eta datuak oso garrantzitsuak dira; adibidez 1994 urtean gure 100 ikasle zeunden munduko toki desberdinetan ikasten.

Nazioartekotze prozesu honetan bestelako proiektu batzuk ere garatu ditugu. Gure kooperatibek makinak edo osagaiak saltzen dituzten bezala, guk ikasketa prozesua esporta dezakegu. Testuinguru honetan hasi genuen orain dela bost urte Mexiko eta Kolonbiako unibertsitateekin elkarlana. Eta Saudi Arabian ere baldintza bereziak eman direnez, aukera aprobetxatu dugu bertan parte hartzeko.

RELEVO. Será en diciembre cuando Vicente Atxa tome el relevo de Iosu Zabala como rector.

**Nolakoa izango da etorkizuneko unibertsitatea?**

Sistema unibertsitarioa oro har hartuta, eragile garrantzitsua izango da gizartean. Ez dut nahi esaldi erretorikotzat hartzea, baizik eta bere zentzua ulertzea. Ikasketa prozesua iraunkorra izan behar da, etengabekoa, txikitan hasi eta unibertsitatean jarraipena izan behar duena. Izan ere, etorkizuneko gizartean gaur egungo ikasleak izango dira faktore eragileak eta horiek behar bezala heztea eta moldeatzea da gure funtzioa: ezagutzan sakonduz, baloreak landuz… Gure kooperatibetan beraiek arituko dira hemendik urte batzuetara, horregatik da hain garrantzitsua enpresen jardueran inplizitoki parte hartzea eta erlazioa estutzea, ez bakarrik produktuak garatzeko baizik eta zerbitzuan eta lana egiteko moduan berritzeko.

# IOSU ZABALA: AUKERAK SORTU ETA LANTZEN JAKIN DUENA

Iosu Zabalaren esaldi gogokoenetako batekin hasten dut testu labur hau: *"Más que ver para creer necesitamos creer para ver"*. Proiektu berriak, eraldatzaileak, zailtasunez beteak… baina gauzatzen doazen heinean Mondragon Unibertsitatearentzat bultzada garrantzitsu bat izango direnak. Horietan aritu da Iosu, eta aritu arazi gaitu gu guztiok. Horretarako, aurreko esaldiaren esanahia eta indarra erabakigarriak izan dira bere zortzi urteko agintaldian.

Aldaketa handiko urteak izan dira azken hauek. Alde batetik, krisi ekonomiko erabat gogorra eta sakona jasan dugu, oraindik jasaten ari gara. Eta bere ondorioak latzak eta ezagunak zaizkigu orokorrean, baina unibertsitatearentzat ere bere eragina izan dute, hezkuntza, ikerketa eta transferentziara bideratutako baliabideak ere murriztu diren heinean. Bestalde, unibertsitatean erreforma garrantzitsuak eman dira, Goi mailako Hezkuntzaren Europako Esparrua (Bolonia Prozesua) abian jarri da eta horrek berak ere egokitze lan sakonak suposatu ditu unibertsitateetan, eta baita gurean ere.

Testuinguru horretan, Iosu Zabalaren agintaldiak ondare benetan oparoa utzi du Mondragon Unibertsitatean. Nabarmena da emandako aurrerakada, hainbat emaitza benetan azpimarragarriak direlarik. Unibertsitatean aldaketa eta aurrerapen sakonak eman dira, "berria" hitza behin eta berriz agertzen zaigularik: Boloniara egokitutako titulu berriak, fakultate berri bat, hainbat eraikin berri, unibertsitatearen nazioartekoratzea bultzatzeko proiektu berri bat, hiriburuetan presentzia proiektu erabat berritzaileekin… Proiektu horiek gauzatzen doaz, errealitate bihurtzen, ez zaitasunik gabe, noski, baina bai pausuak emanez eta helburu irmo garbi batekin: Mondragon Unibertsitatea sendotzea eta bere gizartearekiko konpromisoarekin leial izanez egunez egun egiten den ekarpena handitzen joatea.

*"Talde-sortzailea, gertukoa, apasionatua, baikorra … aukerak sortu eta lantzen jakin du. Eta denok esker oneko gaude".*

Emaitza horiek lortu ahal izateko, behar beharrezkoa izan dira Iosuk dituen hainbat ezaugarri: harreman estuko benetako lan taldea sortzeko izan duen gaitasuna, erabateko gertutasunetik bere zuzendaritza taldekoei eman digun babesa eta laguntza, Mondragon Unibertsitatearen proiektua hedatu eta kontatzeko pasioa, lanerako grina, errealista bai (Realzalea ere bai) baina beti baikortasun eta umore puntu batekin. Talde-sortzailea, gertukoa, apasionatua, baikorra … aukerak sortu eta lantzen jakin du. Eta denok esker oneko gaude.

Iosu, niretzat zorte handi bat izan da zurekin eskuz esku lan egitea. Beti gogoan izango dut aukera berri batek zure begiradan sortzen duen txispa eta galdera zuzena "hi!, eta hau aurrera atera ezkero, ondo, ezta?".

Zuk esan ohi duzun modura: "gora bihotzak!".



**Lander Beloki.**
Enpresagintza Fakultateko dekanoa.

# BCULINARY CLUB: LA OFERTA FORMATIVA PARA ENTUSIASTAS DE LA COCINA



SE HAN DISEÑADO MÁS DE UNA VEINTENA DE CURSOS DIRIGIDOS A AMANTES DE LA GASTRONOMÍA QUE ABARCAN LA COCINA INTERNACIONAL, DISTINTOS TALLERES DE COCINA, DE COPAS Y COCTELES O UN ESPECIAL DE NAVIDAD, ENTRE OTROS.

Basque Culinary Center presenta su oferta formativa para entusiastas y amantes de la cocina: BCulinaryClub Otoño 2014. Más de una veintena de cursos que abarcan la cocina internacional, distintos talleres de cocina temáticos, de copas y cócteles o un especial de Navidad, entre otros. Se trata de cursos que tienen distinta duración, que se realizan en grupos de 16 a 24 personas y cuyo horario habitual es de jueves y viernes por la tarde y de sábados por la mañana, bien en una única sesión o en varias sesiones, según cada curso, y unos impartidos en euskera y otros en castellano.

Entre los talleres de cocina, los entusiastas podrán elegir entre una gama que va desde la iniciación a la cocina de vanguardia, pasando por la oportunidad de cocinar con un chef profesional, adentrarse en la cocina de otoño, un taller sobre el pan, sobre La Rioja o Fiambrera Gourmet, o incluso cocinar los mejores platos gourmet para llevar a la oficina.

En la sección denominada Club Salud, los entusiastas podrán elegir entre cinco cursos: cocina saludable, macrobiótica, un especial meriendas –pensado para cocinar con los hijos–, postres o unas pautas para el control de la diabetes desde la cocina.

La sección de copas y cócteles cuenta con seis talleres diferentes, desde una iniciación a la cata, un aula de cerveza, de gintonic, y tres de maridaje: vinos blancos y quesos; de corte de jamón y champagne; y maridaje de café y bombones. En este apartado todos los talleres son en una única sesión, de 2,5 horas, pensados para grupos de 24 personas y unos precios entre 30 y 35 euros.

> En la sección Club Salud, los entusiastas podrán elegir entre cinco cursos: cocina saludable, macrobiótica, un especial meriendas, postres o pautas para controlar la diabetes .

En un homenaje a la gastronomía internacional se abordará la cocina italiana, americana y asiática a través de talleres prácticos de tres y cuatro sesiones.

Además se han programado dos talleres relacionados con la Navidad. El primero donde se propondrán diferentes menús navideños, con un maridaje perfecto, y el segundo consistirá en aprender a hacer un Roscón de Reyes.

A la oferta se suma el Ostegun Fan Food, una propuesta original y diferente para descubrir los pintxos donostiarras. Cada 15 días, siempre en jueves, un cocinero de uno de los bares representativos de pintxos de Donostia enseñará, en un *showcooking* con degustación y maridaje, las recetas de sus pintxos estrella tradicionales. Participan en esta iniciativa los bares Espiga, Bergara, La Viña, Astelena y Ganbara.

Los interesados pueden contar con la información detallada de todos los talleres, fechas, horarios, número de sesiones y precio en: ***www.bculinaryclub.com***

HUHEZI HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

# KIROLA ETA HEZKUNTZA UZTARTUKO DITUEN ADITU TITULU BERRIA



2015EKO URTARRILETIK AURRERA, KIROLA ETA HEZKUNTZA ARDATZ IZANGO DITUEN GRADUONDO BERRIA ESKAINIKO DU HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEAK: KIROL-HEZITZAILEA ADITU TITULUA. IKASTAROA ANTOLATUTA DAGO ATHLON KIROL ETA OSASUN ZERBITZU ENPRESA KOOPERATIBOAREKIN BATERA, ETA ARETXABALETAKO CAMPUSEAN ESKAINIKO DA.

Mondragon Unibertsitateko aditu titulu propio honen helburua da erantzutea gorputz hezkuntza arloan, Eskola Kirola programan eta kirol hastapenean antzematen diren kezkei. Izan ere, antolatzaileek uste dute kirol hastapena eta gorputz hezkuntza paradigma hezitzailearen arabera birformulatu behar direla, kirolaren balio hezitzailea aldarrikatuz. Beti ere, ahaztu barik garapen pertsonalaz gain, garapen sozialean eragiteko tresna ezin hobea dela hastapen kirola.

Aditu titulu propio honen helburua da erantzutea gorputz hezkuntza arloan, Eskola Kirola programan eta kirol hastapenean antzematen diren kezkei.

Aurrez aurreko modalitateko graduondo hau zuzenduta dago hiru hartzaile multzo nagusiri: batetik, Lehen Hezkuntza (LH), Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) eta Batxilergoko Gorputz Hezkuntzako irakasleei. Bestetik, Eskola Kirola programako koordinazio lanetan ari direnei, eta, azkenik, kirol hastapenean eta kirol erakundeetan lanean jardun duen profesional orori: kirol elkarte, federazio eta administrazioetako ordezkariei, kirol arduradunei…

Kirol hezitzailea aditu tituluak izango ditu, guztira, 500 ordu (20 ECTS). Horrela banatuko dira orduak: aurrez aurreko 140 orduak eskolak jasotzeko izango dira, 200 ordu lan ez presentzialak egiteko eta, azkenik, 160 ordu praktikak eta aditu bukaerako lana gauzatzeko.

Eskolak euskaraz izango dira eta astean behin emango dira, arratsaldez, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak Aretxabaletan duen campusean. Gainera, ikaskuntza prozesuan sakontzeko asmoarekin, ikasturtean zehar, aurrez aurreko bi aste trinko antolatu dira uztailean eta irailean.

Graduondoan eskainiko den formazioan, kontuan hartuko dira kirol eta hezkuntza alor desberdinetatik hartutako irakaspenak, hala nola kirolarien arteko harremanak, lidergoa, balioak, auto-ezagutza, emozioen gestioa, gurasoen kudeaketa eta gatazka-

## 'HEZKUNTZA ERDI PRESENTZIAL' IKASTAROEN ARRAKASTA

Sendotuz doa HUHEZI Fakultatearen *on line* modalitatearen eskaintza. Hala, 2014-2015 ikasturte hasi berrian, inoizko matrikulazio handienak lortu dituzte hezkuntza erdi presentzialeko hiru eskaintzek, hala nola egokitze kurtsoak, bigarren aipamenek eta gradu osoa *on line* egiteko aukerak.

Esaterako, egokitze kurtsoan (lizentzia zaharra gradu berria bilakatzea), 29 ikaslek egin dute matrikula. Hezkuntzan bigarren aipamen edo gradu bat lortzeko ikastaroetan, aldiz, 85ek. Azkenik, zazpi ikaslek egingo dute hezkuntza gradu osoa *on line* eran.

## FAKULTATEAK INDARTU EGIN DU BERE PRESENTZIA SARE SOZIALETAN

Orain arte, batez ere, Twitter sarea baliatu izan du fakultateak informazioa partekatzeko eta jarraitzaileekin harremanetan egoteko. Orain, ordea, Facebook sare sozialean ere toki propioa izango du.

Facebook baliatuko da Eskoriatza eta Aretxabaletako campusetan gertatutakoaren berri emateko, ezagutzera emateko ikasle zein irakasleen lanak, bizitza unibertsitarioen berri emateko, eta, sustatzeko jarraitzaile guztiekin harreman gertuago bat. *www.facebook.com/huhezi.mu*

# CURSOS DE ADAPTACIÓN CON SELLO EUROPEO

EL CURSO PASADO, LA ESCUELA POLITÉCNICA SUPERIOR DE MONDRAGON UNIBERTSITATEA RECIBIÓ DE LA AGENCIA EUROPEA ENAEE EL SELLO EUROPEO / INTERNACIONAL EUR-ACE, EN CONCRETO PARA EL GRADO DE INGENIERÍA MECÁNICA.




Además, la Escuela Politécnica Superior ofrece seis cursos de adaptación para que los ingenieros técnicos puedan obtener el título de grado. Hoy en día, el curso de adaptación de Ingeniería Mecánica y Electrónica Industrial se ofrece exclusivamente on line. Aitor Arana y Joseba Zaldibia son los responsables de ambos cursos.

**¿Qué supone el sello europeo/ internacional EUR-ACE para la Escuela Politécnica Superior?**

Es un reconocimiento, un sello otorgado por la agencia europea ENAEE que acredita los estudios de Ingeniería a nivel de Europa. Para el alumno supone tener más facilidades en cuanto a movilidad y empleabilidad y un plus en su curriculum ya que tiene una titulación acreditada en Europa. Este reconocimiento es para todos nuestros estudiantes que han terminado Ingeniería Mecánica desde que se implantó en MU y para quienes cursen estos estudios en el futuro.

En definitiva, es un sello que se traduce en reconocer la calidad de los estudios, la transparencia, el desarrollo de competencias, la orientación al mercado laboral, etc. No son aspectos nuevos, ya que llevamos años trabajando en la metodología de estudio basada en proyectos.

**Se trata de un reconocimiento para los profesionales, pero valorado igualmente por la empresa.**

Efectivamente, es un aspecto importante para ambos. Debido a la situación de crisis que vivimos actualmente cada vez son más los alumnos que tras terminar sus estudios buscan empleo en Europa, por lo que tener unos estudios de grado con sello europeo será determinante para poder encontrar un trabajo fuera del Estado. Por otra parte, el perfil profesional es otro factor importante, ya que el salario se fija dependiendo del perfil que se determine y el hecho de contar con una titulación europea acredita un nivel superior.

**¿Este sello es también para aquellos alumnos que realizan los cursos de adaptación?**

Sí, claro. Tras superar el curso de adaptación al grado, además de actualizar sus conocimientos y su titulación, el alumno logra una titulación válida a nivel europeo.

En la mayoría de los casos, el profesional que desea adaptar sus estudios a grado tiene la necesidad de equiparar su titulación con el resto de titulaciones europeas para: trabajar en países europeos, porque debe preparar oposiciones públicas, o bien porque desea cursar un máster.

La mayoría de los que cursan son profesionales en activo, por lo cual se les ofrece la posibilidad de compaginar el curso con su vida profesional. Por eso optan a realizar de manera semipresencial o incluso on line. Es importante constatar que el éxito de quienes realizan el curso es superior al 95%.

**¿Cómo se desarrolla el curso en modalidad on line?**

En este momento impartimos los cursos de adaptación de Ingeniería Mecánica y Electrónica Industrial exclusivamente on line, aunque en breve también se impartirán otras ingenierías.

A través de la plataforma Moodle y las aulas virtuales, el alumno se conecta después de su jornada laboral y desarrolla las actividades necesarias para avanzar en la asignatura (teoría, ejercicios, proyectos, tests) igual que en clase. Comparte dudas, sugerencias y otras cuestiones con los compañeros que también están conectados y además cuenta en todo momento con un tutor que supervisa los temas tratados o trabajos y proyectos realizados.

En este momento estamos trabajando para poner en marcha prácticas en laboratorios virtuales. En definitiva, partiendo de los laboratorios que tenemos hoy en día, deseamos dotarlos de nuevas herramientas para que el alumno realice las prácticas desde casa. Porque las prácticas en laboratorio son las que diferencian a Eskola y queremos que nuestros alumnos on line realicen también estas prácticas.

# PISTOLETAZO DE SALIDA AL GRADO LEINN EN VALENCIA

UN TOTAL DE DIECIOCHO PERSONAS EMPRENDEDORAS EMPEZARON “CON FUERZA” EL CURSO DEL GRADO LEINN, LIDERAZGO EMPRENDEDOR E INNOVACION, QUE IMPARTE ESTE AÑO FLORIDA UNIVERSITARIA JUNTO CON LA FACULTAD DE ENPRESAGINTZA DE MONDRAGON UNIBERTSITATEA.



## EMPRENDIENDO DESDE EL PRIMER DÍA

Desde el primer día han salido a la calle a conocer el ecosistema empresarial más próximo con el reto de visitar empresas, tener su primer contacto con la realidad y perder el miedo.

Los alumnos y alumnas debían contactar con la empresa y conseguir mantener una breve reunión con alguno de los responsables. Estas visitas las tienen que documentar bien recogiendo tarjetas de visita o a través de las redes sociales (@valencia_lab), colgando una foto con las personas con las que se han reunido. Así empezó el primer día de curso en el Grado LEINN de Florida Universitaria, un grado con una nueva metodología finlandesa que convierte al alumnado en emprendedor desde el minuto 0.

El siguiente paso de estos 18 aventureros de LEINN, fue en apenas un mes, en el que viajaron a Bilbao para conocer a 'Leinners' de otros cursos y donde podrán trabajar en proyectos conjuntos.

Después de dos semanas, cogerán un vuelo dirección Finlandia (Turku). Se trata de un viaje formativo de un mes que les servirá para conocer más en profundidad la metodología con la que van a trabajar durante el grado, así como realizar sus primeros proyectos internacionales.

El objetivo de LEINN es convertir a los alumnos en agentes de cambio, en busca de una transformación del entorno creando nuevos negocios en equipo mientras adquieren valores y competencias desde un aprendizaje activo desde la experiencia.

> En breve viajaron a Finlandia . Es un viaje formativo que les servirá para conocer más en profundidad la metodología con la que van a trabajar.

# ENPRESEN ADMINISTRAZIO ETA ZUZENDARITZA GRADUKO IKASLEEK WORK BASED METODOAREKIN DIHARDUTE

Gaur egun empresa gehienek eskatzen dute esperientzia izatea, eta Enpresagintzan GADE ikasten dutenek oinarrizko esperientziarekin irtengo dira. Izan ere, *Work based* metodologia edo alternantzia eredua erabiliz, konpetentziak eta ezagutzak praktikaren bitartez bereganatuko dituzte.

Horregatik ikasle orok empresa ezagutuko dute karrera amaitu baino lehen. Enpresa ibilbidea aukeratzen dutenek kurtso guztietan izango dute aukera enpresako esperientzia izateko, eta ibilbide akademikoan berriz gradu amaierako proiektua egingo dute enpresan.

Horrez gain, guztiek izango dute atzerrian esperientzia bat, kasu gehienetan graduko hirugarren mailan gauzatzen dena. Dagoeneko, ikasturteko lehendabiziko hilabetea igaro dute bai Oñatiko zein Bidasoako campusetan.

**BEGONA PEDROSA** HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEKO DEKANOA

# "ZUZENDARITZA TALDEAREN ILUSIOA ETA KONPROMISOA SEKULAKOAK DIRA"

ARRATIAKO BAILARAKOA DA BEGOÑA PEDROSA, AREATZAKOA, ETA HUHEZI-N 13 URTE EGIN DITU DAGOENEKO LANEAN. LEHENENGO DOZENTZIAN ARITU ZEN, ONDOREN IKERKETA ETA KUDEAKETA ARLOETAN, ETA TARTEAN TESIA GARATZEKO AUKERA ERE IZAN DU. BEHETIK GORAKO IBILBIDEAN IRITSI BERRI DA GOIENEKO MAILARA, DEKANO IZATERA.

**Izendatu berri zaituzte, nolakoak izaten ari dira aurreneko egun eta hilabeteak?**

Oso garrantzitsua izan da Nekane Arratibelekin orpoz orpo eginiko lana. Otsailean izendatu ninduen Errektore Kontseiluak eta ordutik trantsizio fase bat ireki genuen uztailaren amaierara arte. Fase horretan Nekaneren laguntza funtsezkoa izan da. Aldi berean, formazioak ere jaso ditut eta gestio zuzenean murgiltzeko aukera izan dut. Irailetik aurrera ekipo berriarekin dihardut.

**Zeintzuk izango dira zure taldearen erronka nagusiak?**

Erronkak urtero izango ditugu, eta nola ez, proiektua garatzen jarraituko dugu. Momentuz indarrean dagoen plan estrategikoa izango da gure egitekoaren oinarria; MUrekin elkarlanean eta HUHEZIren egitasmoan oinarrituz. Berrikuntza pedagogikoan jarraituko dugu eta ikerketa arloa ere bultzatzen jarraitu behar dugu gure Fakultatean. Horrez gain, nazioartekotze estrategian ere hausnarketa sakona egitea tokatuko zaigu. Gure eredua mundura ireki nahi dugu baina, horrez gain, mundua ere gure kulturara eta errealitatera erakarri beharko dugu. Ekipo berriak, halaber, erronka propioak izango ditu bidean. Ilusioa eta konpromisoa sekulakoak dira eta gure proiektuarekiko atxikimendu handia dugu eta pertsonengan sinesmen handia dugu.

**Zelako ekipoa osatu duzue?**

Badaude aurreko zuzendaritza taldean aritutakoak eta baita pertsona berriak ere. Etorkizunera begira gure taldearen esperientziaren eta freskotasunaren arteko oreka oso interesgarria izango da.

**Une honetan komunikazio kanalak ireki dituzue aldaketen berri emateko, ezta?**

Halaxe da, bai. Aldaketa horien guztien berri azarotik aurrera egingo diren bileretan emango dugu. Kolektiboak jakin behar du zelako aldaketak egin diren, zer proposatzen duen eta etorkizuna nola ikusten duen zuzendaritza berriak.

*"Inguruan eragin nahi dugu garatzen ari garen jakintzarekin, eta hori egiteko, formula berriak bilatzen jarraitzea beharrezkoa da."*

**Zein da zuen fakultatearen bidai orria epe labur-ertainera?**

Epe luzerako proiekzioak egitea zaila da, baina HUHEZIk baditu bisio eta misio propioak eta gizartearekin konpromisoa dugu. Argi dagoena da berrikuntzan sinesten dugula. Esango nuke berrikuntza arloa mahai gainean dagoela etengabe. Gure kasuan, hezkuntza, komunikazioa eta lankidetza arloak jorratzen ditugu, eta hiru lan lerro nagusi horietan gizarteari ekarpenak egiten eta gure inguruari eragiten jarraitu beharra dugu. Ikertu gure eskaintza akademikoa berrizteko eta gure ikasleen formazioan eragiteko, eta bide batez gure gizartean eragiteko.

**Nola gustatuko litzaizuke gizarteak ikustea HUHEZI?**

Hartzaile ezberdinak irudikatzen ditut, gure proiektuaren barne dauden ikasleak eta gure inguruan ditugun profesionalak. Horrez gain, Estatu mailan ere erreferente izaten jarraitzea eremu batzuetan: metodologia berrietan, adibidez. Gurako neuke eurek guztiek hurbil ikustea HUHEZI. Hezkuntza arloa, esaterako, zutabe garrantzitsua da gizartearentzat, izan ere, hezitzaileak formatu behar ditugu etorkizunerako, belaunaldiak haziko dituzten pertsonak formatu behar ditugu: eredu berritzaileetan, kulturgintzan, eleaniztasunean... Era berean komunikazioan ere profesional orekatuak, modu integralean Euskal Herritik mundura etikaz begiratuko dutenak hezi behar ditugu; betiere kooperazio baloreak oinarrian izanda. Profesional horiek guztiak etengabeko berrikuntzan murgiltzea eta kooperazio baloreetan heztea. Ez da erronka makala.

Gure euskalduntasunetik egin behar dugu lan, baina mundura irekiak. Euskaldunak gara eta bide horretan norabidea gal-

du barik lanean jarraitu beharko dugu.

**Indarguneak aipatu dituzu: inplikazioa, konpromisoa, berrikuntza... Horiek dira bereizten zaituzten ezaugarriak?**

Hezkuntza eredu propioa garatu du MUk eta sinisten dugu eredu propio horretan. Hortan gabiltza momentu honetan berriro ere. Eta aurrera egiteko berrikuntza horretan indarra jartzea funtsezkoa izango da. Bestetik, dozentziaren eta ikerketaren bidetik jarraitu behar dugu, doktoregaiak gure proiektura erakarriz eta etxe barruan proiektu berritzaileak sustatuz. Horrek guztiak aukera emango digu ikertzen ari garena dozentziara eta enpresetara gerturatzeko. Azken finean, inguruan eragin nahi dugu garatzen ari garen jakintzarekin, eta hori egiteko, formula berriak bilatzen jarraitzea beharrezkoa da.

**Irakaskuntzaren arloan badira eztabaida mardulak eta aldaketa prozesu garrantzitsuak. Bologna, Wert legea... Nola bizi duzue hau guztia egunerokotasunean?**

Unibertsitateak erronka asko izan ditu azkenengo urteetan. Bologna prozesua inplementatu da eta hausnarketa bat egin beharra daukagu, hoberantz joan nahi badugu. Oraindik Bologna mamitzen ari gara, baina argi izan behar dugu beste edozein aldaketari heltzeko prest egon beharko garela. Aldaketarako prest, berrikuntzarako prest uneoro. Wert legeari dagokionez, atzerapauso moduan ikusten dugu. Konpetentzietan oinarritzen den eredu baten alde egin nahi badugu, hau da, egiten eta izaten ikastera eraman nahi baditugu ikasleak, proposatutakoa ez da biderik eragingkorrena. Ikusiko dugu non kokatzen garen zentzu horretan. Europan dauden beste eredu aitzindarietatik urrun geratuko gara eta ikaslea modu integralean garatzeko aukera galduko dugu.

**MU barruan HUHEZIk zein eragin izatea gurako zeuke?**

MU gara eta MUren barruan ekarpenak egitea gustatuko litzaiguke. Guztiok bat gara eta horrela sentitzen dut. Fakultate guztien artean MUren bidea adostu dugu eta euskal gizartera zein nazioartera begira bide bat lantzen dihardugu... guztiok eskutik eta elkarrekin.



"BEGOÑA PEDROSA ha participado en la gestión de la facultad de humanidades y ciencias de la educación aunque nunca ha sido parte del equipo de dirección.

**Nolakoa izatea gurako zenuke enpresa munduaren eta zuen fakultatearen arteko harremana?**

Lan lerro ezberdinetan harreman estua izatea gustatuko litzaiguke. Esaterako, lankidetza lerroetan gure jendea buru-belarri ari da Korporazio barruan etengabeko formazioa eskaintzen. Komunikazioa departamentuak lan handia egiten ari da euskarazko hedabideekin, adibidez. Era berean, hezkuntza ikuspegitik ere lerro ezberdinak ditugu, eta arlo bakoitzean gero eta harreman estuagoa dugu erakunde eta enpresekin. Eta gure ikerketa eredua eta jakintza ikastetxeetara eramaten ari gara. Hitzarmenak ditugu Euskal Herriko toki ezberdinetako erakundeekin eta ahalegin berezia egin behar dugu kolaborazioan lan egiteko. Erakundeen beharretara egokitu eta aholkularitza eskaini behar diegu.

**Bukatzeko, on line eskaintza ere gero eta garrantzitsuagoa da zuenean, ezta?**

Profesionalen prestakuntzak indar handia hartu du Mondragon Unibertsitatean eta gure fakultatean ere produktu erakargarriak sortu nahian gabiltza. Profesionalei begira, lanean dihardutenei kalitatezko produktuak eskaini nahi dizkiegu. Hori da gure helburua. On line formatoak eskaintza erakargarria proposatzeko aukera ematen digu. Beste modu bat da jakintza gizartera hurbiltzeko.

**GEP**

## MOTELGAILU MAGNETO-ERREOLOGIKOAK

Motelgailu magneto-erreologikoak bibrazioen atenuazioa optimizatzeko erabiltzen dira. Tesi honetan motelgailu hauen portaera aztertu da. Horretarako, lehenik konposaketa ezberdineko fluido magneto-erreologikoak formulatu eta entseatu dira. Fluido hauek diseinu ezberdineko motelgailuetan erabili dira, motelgailuari lan baldintza ezberdinak ezarriz. Honela, parametro hauek motelgailuaren portaeran duten eragina aztertu da.



JOANES BERASATEGI El comportamiento de los amortiguadores magnetoreológicos es diferente según los parámetros y condiciones.

**GEP**

## METODOLOGÍA NUMÉRICA

El objetivo es proponer una metodología numérica para caracterizar la transferencia de calor y el flujo a través de los regeneradores Stirling de malla. La complejidad del modelo se aumenta progresivamente, comenzando por el modelado 3-D detallado de un volumen pequeño de matriz de malla bajo condiciones de flujo unidireccional e isotermo hasta llegar a modelar la longitud completa del regenerador bajo ciclos regenerativos de flujo oscilante.



SOL CAROLINA COSTA. Stirling birsortzaileen bitartez igortzen den beroa eta fluxua bereizteko zenbakizko metodologia landu du.

**GEP**

## SELECCIÓN DE BATERÍAS ION-LITIO

La Tesis Doctoral, llevada a cabo en IK4-Ikerlan, propone una metodología robusta para la selección de baterías ion-litio y pronóstico de su envejecimiento, como paso decisivo en el desarrollo e integración de soluciones fiables de almacenamiento eléctrico en aplicaciones industriales. Los objetivos finales de la metodología desarrollada son la reducción de los costes de inversión y mantenimiento, y la definición de las estrategias de operación, para optimizar el rendimiento en operación y su vida útil.



ELIXABET SARASKETA Ion eta litiozko baterien kasuan, bata edo bestea aukeratuta ematen den zahartze prozesua landu du.

**GEP**

## ALMACENAMIENTO BASADO EN CÉLULAS ELECTROQUÍMICAS

Este trabajo se centra en los sistemas de almacenamiento basados en células electroquímicas, concretamente en las baterías de litio, ya que su alta densidad de energía y su vida útil las hace adecuadas para aplicaciones de tracción y de almacenamiento en red eléctrica. Esta tesis se centra en la optimización electro-térmica de sistemas de almacenamiento basados en baterías de litio para alargar su vida útil aprovechando al máximo sus prestaciones.



UNAI IRAOLA Biltegiratze sistemetan optimizazio elektro-termikoa aztertzen da, litiozko baterietan oinarrituta.

**GEP**

## IMPLANTES DENTALES

Cada año, se realizan millones de implantes dentales en el mundo. El éxito post-operatorio de estos implantes depende en gran media del daño inducido en la operación de taladrado de hueso. En esta tesis, se analiza la influencia de las condiciones de taladrado de hueso en la temperatura del hueso, las fuerzas de corte y el acabado superficial. Por otra parte, con el fin de minimizar el daño inducido, se han desarrollado nuevas brocas quirúrgicas.



JOSU SORIANOk potentzia bihurgailuak aztertzen dihardu etorkizuneko sare elektrikora begira.

**ENPRESAGINTZA**

## GIZARTE ERANTZUKIZUNA

Tesi honek Gizarte Erantzukizunaren (GE) dimentsio desberdinek finantza erakundeetako erabiltzaileen pertzepzioarengan duten eraginaren inguruko ikerketaren emaitzak aurkezten ditu. GEaren dimentsioek aipatutako aldagaietan duten eraginaren analisi bereiztua egin ondoren, emaitzek izan dezaketen zuzeneko efektuetan desberdintasunak daudela nabarmentzen dute. Hau guztiz erabilgarri eta lagungarria da GEaren inguruan finantza erakundeek ekintzak definitu eta lehenesteko orduan.



IRUNE GÓMEZ analiza la influencia de las dimensiones de la RSC en la reputación corporativa.

**GEP.** AITOR RUIZ DE LA TORRE

# "MU-N IKASITAKOAK PREST DAUDE MERKATURA IRTEN ETA LANPOSTUETAN KOKATZEKO"




**INGENIERÍA ORGANIZATIVA.** Aitor Ruiz de La Torre comenzó estudiando Ingeniería Mecánica y terminó especializándose en Ingeniería Organizativa.

RUIZ DE LA TORRE DEBARRAK GOI ESKOLA POLITEKNIKOAN INGENIARITZA MEKANIKOA ETA INDUSTRIA ANTOLAKUNTZA IKASI ZUEN. IRAKASLEEN, IKASLEEN ETA UNIBERTSITATEKO EREDUAREN OSO OROITZAPEN ONAK DITU. PROIEKTUA AURKEZTU ONDOREN, FAGOR ARRASATEKO EROSKETA ZENTRALEAN LANEAN HASI ZEN ETA HAN JARRAITZEN DU.

**Argi zenuen zer ikasi?**

Ingeniaritza egin nahi nuen, baina ez nengoen ziur zer espezialitate eta Mekanikoa aukeratu nuen. Gerora, Ingeniaritza Mekanikoaren azken urtean Antolakuntzaren alorra ezagutu eta Antolakuntzako goi mailako ikasketak egitea erabaki nuen. Ingeniaritza eta arlo teknikoak beti gustatu izan zaizkit, hala ere, oso gustuko dut enpresan eman daitezkeen arlo ezberdinen eta pertsonen kudeaketa.

**Zein da daukazun oroitzapenik onena?**

Egindako lagunez gain, betiko direnak, oroitzapen onena nire proiektuko azken urtekoa da. Erasmus-en bitartez Danimarkan 'Comparison between incremental innovation and radical innovation' proiektua egiteko aukera izan nuen. Bertan, zenbait enpresen berrikuntzaren kudeaketak aztertu nituen. Exeter Unibertsitatean (Ingalaterra) gauza bera egin zuten eta emaitza guztiekin txosten bateratua egin genuen.

**Zer nabarmenduko zenuke Mondragon Unibertsitatetik?**

Irakasle eta ikasleen arteko gertutasuna. Beste unibertsitate askotan ikasle bakoitza zenbaki bat da, baina hemen ikasle bakoitza zaintzen da. Irakasleek ezagutzen zaituzte, lan-talde asko eratzen dira… Ebaluatzeko metodoei dagokienez, lanei balio handia ematen zaie. Horrek ikasleok saiatuagoak izatea eta gehiago ikastea erraztzen du.

**Badaukazu zure ikaskideak zirenekin harremanik?**

Ikasketak bukatzerakoan ikasle ohien elkartean alta eman nuen, baina ez dut aukerarik izan urteko ekintzetan parte hartzeko. Bestalde, ikasle askorekin harremanari eusten diot, eta talde txiki bat sarri elkartzen gara.

**Zer nabarmenduko zenuke zure lanetik?**

Proiektua bukatu eta berehala Fagor Arrasateko Erosketen Departamendu Zentralean hasi nintzen lanean. Oso gustura nago, enpresaren ikuspegi orokorra dudalako eta beste departamentu askorekin harremana daukalako. Gainera, lan-talde gazte eta dinamikoa dugu, oso aberasgarria dena.

**Zer aholku emango zenieke ikasleei?**

Lasai egoteko. Merkatuan aukerak badaude eta Mondragon Unibertsitatean ikasitakoak prest daude merkatura irten eta lanpostuetan kokatzeko. Horrez gain, hizkuntzak ikastea aholkatuko nieke, gero eta garrantzitsuagoak direlako gaur egun bizi garen mundu konpetitiboan.

## MU-KO KIROL ZERBITZUA

# UNIBERTSITATE ARTEKO ESTROPADA AKADEMIKOA, KIROL EKITALDIA BAINO ZERBAIT GEHIAGO




ESTROPADA AKADEMIKOA URRIAREN 18-19KO ASTEBURUAN JOKATU ZEN DONOSTIAN. EGITARAU ZABALA IZAN ZUEN 70 ARRAUNLARI INGURU ELKARTU ZITUEN EKITALDIAK. LARUNBATEKO MINTEGIETAN, IBAIAREN GARRANTZIAZ ETA ARRAUNAREN EGOERA ETA BEHAR FISIOLOGIKOEZ HITZ EGIN ZEN ETA IGANDEAN, ESTROPADAK JOKATU ZIREN URUMEAN; ERLOJUPEKO JAITSIERA ETA SPRINT BIDEZ JOKATUTAKO KANPORAKETA.

Ekitaldi honetan, baina, garrantzitsuena ez zen garaipena, kasu honetan beste alderdi batzuk izan dira aipagarrienak. Lehenik, historikoki errekek eta ibaiek izan duten garrantzia goraipatzea zen helburu nagusia. Mintegian ikasi bezala, hasieran merkaturako erabili baziren ere, aspaldi hasi ziren aisialdirako erabiltzen; bainu, bisitak eta estropadak aurretik ere eman dira Urumea ibaian. Ekitaldi honen bitartez, izan duten garrantzia gogoratu eta onartu zuten ekitaldiaren sustatzaileek.

Bestalde, bost unibertsitate ezberdin elkarlanean aritu dira ekitaldiaren antolakuntzan laguntzen, eta guztien indarrak batuz, ekitaldi interesgarria bilakatu da. Era berean, unibertsitate bezala gizartearengan dugun erantzukizunari erreparatuz, hots, gizartearen eraldaketa bultzatu eta ondarea sustatzea, ekitaldi honekin bi esparruak landu dira.

**REGATA ACADÉMICA.** La regata académica se disputó el 19 de octubre en el río Urumea.

### ESTROPADA BAT BAINO ASKOZ GEHIAGO

Batetik, ikasleek ahalik eta era egokienean hezi behar dira, etorkizuneko gizarterako pertsonak prestatuz, edukiak transmititzeaz gain, baloreetan heziz; heziketa integralean klasetik kanpo egiten diren ekintzei garrantzia emanez, jarduera fisikoan lantzen diren beste baloreak ere ikusiz (talde lana, esfortsua…).

Bestetik, unibertsitateek gizartean uzten duten ondarearen inguruan, ikerketa, berrikuntza eta ekitaldien antolaketaren bitartez ondare hau mantendu eta indartzea lortu daitekeela ikusten da. Unibertsitate guztien indarrak batuz, Donostia eta Gipuzkoan oihartzuna eta garrantzia izan dezakeen ekitaldia bihurtu dezakegula uste dute.

Bideari ekin zaio eta espero da urteek aurrera egin ahala, unibertsitate gehiagok parte hartuko dutela eta ekitaldiak oihartzuna izango duela, halaber, erreferente bilakatuko dela.

Eskerrik asko parte hartzaile guztiei.

AGENDA

## ABENDUA

- Diseño de experimentos DOE 01/12/2014
- Curso online en seguridad perimetral. 02/12/2014
- Curso comunicaciones industriales. 04/12/2014
- Coordinación de actividades y cesión ilegal de trabajadores 04/12/2014
- Lo que toda persona vinculada a la Innovación debe saber sobre patentes. 15/12/2014
- Curso Seguridad en máquinas 16/12/2014

## URTARRILA

**JARDUNALDIAK**

Aretxabaletako campusean.

- Gertuko ko munikabideen II. jardunaldia. Urtarrilak 15
- Ikasgela hizkuntzaren ikas-irakaskuntzareko ikerketa gunea VII. mintegia Urtarrilak 22 eta 23.
- Kirol-hezitzailea aditu titulua 2015/01/14
- Máster en seguridad industrial y laboral (semipresencial).15/01/201
- Curso experto en marketing y management del surf y de los deportes de deslizamiento. 16/01/2015
- Curso online en inteligencia competitiva y vigilancia tecnológica. 19/01/2015
- Liderazgo para el desarrollo y la motivación. 20/01/2015
- Máster en dirección de producción (XXIII edición). 20/01/2015
- Máster en sumillería y enomárketing. 21/01/2015
- Curso online en auditoría de seguridad informática. 26/01/2015
- Curso coordinación de actividades empresariales en ámbitos internacionales. 28/01/2015
- Curso de Adaptación Grado en Ingeniería Mecánica. 30/01/2015
- Curso de Adaptación Grado en Ingeniería en Electrónica Industrial. 30/01/2015

## OTSAILA

- Máster profesional en energía eléctrica. 02/02/2015
- Perfeccionamiento de técnicas culinarias. 02/02/2015
- Curso experto en gestión de proyectos. 09/02/2015
- Curso avanzado en selección, montaje y mantenimiento de elementos de máquinas. 09/02/2015
- Jornada sobre tolerancias en planos mecánicos dimensionales superficiales y geométricas. 09/02/2015
- Curso Tratamientos térmicos y ensayos mecánicos. 09/02/2015
- Curso avanzado en programas de mejora continua LEAN-SIX SIGMA. Nivel Black Belt. 10/02/2015
- Curso Gestión Financiera 12/02/2015
- Máster en coaching de personas y equipos. 12/02/2015
- Curso experto en liderazgo de equipos y personas. 12/02/2015
- Máster en seguridad informática (online) 16/02/2015
- Jornada selección, montaje y mantenimiento de guiado rotativo y lineal (rodamientos y guías). 16/02/2015
- Curso aceros: conceptos generales y tratamientos térmicos. 23/02/2015
- Jornada sobre selección, montaje y mantenimiento de elementos de estanqueidad. 23/02/2015
- Curso avanzado en interconexión de redes CISCO. 27/02/2015

**Informazio gehiago:**
***www.mondragon.edu/cursos***

EROSKI
zurekin

Musakola auzoa 11
ARRASATE
943 71 10 30
www.grupoeroski.es




# GRADUKO
# ATE IREKIAK 2014-2015

902 110 436
WWW.MONDRAGON.EDU/PREST

etorriko zarela jakinarazi! ¡comunica tu asistencia!

## GOI ESKOLA POLITEKNIKOA · ESCUELA POLITÉCNICA SUPERIOR

### ARRASATE

Loramendi, 4. ARRASATE-MONDRAGÓN

| | | | |
|---|---|---|---|
| **ABENDUA** DICIEMBRE* | **13** | LARUNBATA SÁBADO | 10:30 |
| **OTSAILA** FEBRERO* | **7** | LARUNBATA SÁBADO | 10:30 |

* Biteri eta Arana Ikastetxe Nagusia bisitatzeko aukera egongo da. Habrá opción de visitar el Colegio Mayor Biteri y Arana.

### GOIERRI

Arranomedia, 2. ORDIZIA

| | | | |
|---|---|---|---|
| **URTARRILA** ENERO | **22** | OSTEGUNA JUEVES | 17:30 |

### DONOSTIALDEA

Orona Ideo, HERNANI

| | | | |
|---|---|---|---|
| **ABENDUA** DICIEMBRE | **11** | OSTEGUNA JUEVES | 17:30 |
| **OTSAILA** FEBRERO | **28** | LARUNBATA SÁBADO | 10:30 |

### i HIRIETAN AURKEZPENAK: INGENIARITZA
PRESENTACIONES EN CIUDADES: INGENIERÍA

**AZAROA** NOVIEMBRE **12** / 18:30
**BILBAO:** Bilbao Berrikuntza Faktoria Uribitarte kalea, 6

**AZAROA** NOVIEMBRE **19** / 18:30
**IRUN:** Palacio Ducourau. Hendaia Kalea, 8

## HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA · FACULTAD DE HUMANIDADES Y CIENCIAS DE LA EDUCACIÓN

### ESKORIATZA

Dorleta auzoa, z/g. ESKORIATZA

| | | | |
|---|---|---|---|
| **OTSAILA** FEBRERO | **7** | LARUNBATA SÁBADO | 11:00 |

### ARETXABALETA

Otalora, 29. ARETXABALETA

| | | | |
|---|---|---|---|
| **OTSAILA** FEBRERO | **7** | LARUNBATA SÁBADO | 11:00 |

## ENPRESAGINTZA FAKULTATEA · FACULTAD DE EMPRESARIALES

### OÑATI

Ibarra Zelaia, 2. OÑATI

| | | | |
|---|---|---|---|
| **ABENDUA** DICIEMBRE | **11** | OSTEGUNA JUEVES | 18:00 |
| **OTSAILA** FEBRERO | **7** | LARUNBATA SÁBADO | 11:00 |

### BIDASOA

Palacio Ducourau. Hendaia Kalea, 8. IRUN

| | | | |
|---|---|---|---|
| **ABENDUA** DICIEMBRE | **13** | LARUNBATA SÁBADO | 11:00 |
| **OTSAILA** FEBRERO | **12** | OSTEGUNA JUEVES | 18:00 |

### BILBAO
BILBAO BERRIKUNTZA FAKTORIA

Uribitarte kalea, 6. BILBAO

| | | | |
|---|---|---|---|
| **ABENDUA** DICIEMBRE | **13** | LARUNBATA SÁBADO | 11:00 |
| **OTSAILA** FEBRERO | **7** | LARUNBATA SÁBADO | 11:00 |

## GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA - BASQUE CULINARY CENTER
## FACULTAD DE CIENCIAS GASTRONÓMICAS - BASQUE CULINARY CENTER

### DONOSTIA - SAN SEBASTIÁN

Paseo Juan Avelino Barriola, 101. DONOSTIA

| | | | |
|---|---|---|---|
| **ABENDUA** DICIEMBRE | **13** | LARUNBATA SÁBADO | 10:30 |
| **OTSAILA** FEBRERO | **12** | OSTEGUNA JUEVES | 18:00 |

## ATE IREKIAK PUERTAS ABIERTAS ONLINE

HTTP://MUKOM.MONDRAGON.EDU/MUTB

| | | | |
|---|---|---|---|
| **ABENDUA** DICIEMBRE | **16** | ASTEARTEA MARTES | 18:00 |

**INSKRIPZIO EPEA:** 2014ko ABENDUAREN 1etik 2015eko EKAINAREN 12 arte. **ORDUTEGIA:** 08:30 - 12:00 eta 14:30 - 17:30.
**Plazo de inscripción:** del 1 de diciembre de 2014 al 12 de junio de 2015. **Horario:** 08:30 - 12:00 y 14:30 - 17:30.